



43. ELKARREKIN GAIZKI BAINO,
HOBE APARTE ETA ONGI!

0. AZALA

Azaleko orrian, betiko lez, esaldi esanguratsu eta interesgarri bat agertzen zaigu: “Elkarrekin gaizki baino, hobe aparte eta ongi”. Interesgarria iruditzen zaigu, zure haurrari esaldi horren esanahia azaltzea.

Horretarako, zera azaldu diezaiokezu:

Gaur egun, bikoteen artean izaten diren gatazken ondorioz, sarri bereizi egiten dira bi lagun. Horrelakoetan, gurasoek elkarrekin jarraitzea nahi izaten dute haurrek, baina batzuetan, beharrezko neurri bat da banantzea edo dibortzioa, harremana oso gatazkatsua bihurtu denean, seme-alabengan ondorio larriak dituen edo egoera konpontzeko baliabideak bukatu direnean.

Normala da haurrak gurasoak elkarrekin egotea nahi izatea, baina, esaldiak dioen bezala, batera eta gaizki egotea baino, hobe da banatu eta ondo egotea.

Ea ulertzea lortzen duen. Nahi baduzu, ezagutzen duzun egoera ezagunen baten inguruan hitz egin diezaiokezu... Jarri adibideak hobeto uler dezan...

1. HERRI HEZITZAILEA HERRI ESKOLA

Testu honetan, jardunaldi interesgarri eta polit baten inguruko informazioa ematen zaigu. Haurrak ez du jardunaldira joateko aukerarik izango, zuk bai... Hala ere, jardunaldiaren inguruan informatu ahal dezakezu...

Eman informazioa modu erakargarrian: izenburua ahoz goran irakurriz, hitz tonua altxatuz eta dramatizazioa erabiliz... Ea haurra irakurtzera erakartzea lortzen duzun.

Behin berak testua irakurririk, hitz egin Finlandiako hezkuntza sistemaren inguruan. Horretarako, erabili Interneteko baliabideak: bideoak, aldizkarietako artikulak, irudiak...



43. ELKARREKIN GAIZKI BAINO,
HOBE APARTE ETA ONGI!

2. AURKIBIDEA

Aurkibidearen atalean eskuinaldean ageri den testuan zentratuko gara. Atal honetan, haxe egin dezakezu:

- Lehenengo, irakurri testua eta saiatu ondo barneratzen bertan adierazten duena.
- Irakurri testua haurrari.
- Galdetu irakurritakoa ulertu ote duen.
- Ulertu duela ziurtaturik, eskatu bere hitzetan esateko azaldu diozuna.
- Amaitzean, esan haren ahotsa entzun nahi duzula eta eskatu testua berak zuri irakurtzeko.
Entzun iezaiozu adi, eta eskaini noizean behin feedback positiboa.

3. PUPU ETA LORE

Komikitxoan, Pupuk eta Lorek beraien erara adierazi digute zer-nolako gatazkak izan ditzaketen elkarrekin dauden gurasoek.

Gure gomendioa da haurrak eta biok elkarrekin irakurtzea. Nola? Bada, zuei gehien gustatzen zaizuen erara!

Ondoren, komikiko errimetan erreparatuz, beste errima batzuk asma ditzakezue!

4. PIRRI TX, PORRO TX ETA MARIMOTOTS

Gure laguntxoan komikia irakurtzeko, esan haurrari zuk irakurriko duzula komikia! Baina adi! Izan ere, berak zeregin garrantzitsu bat izango baitu: irakurtzen diharduzun heinean, zu kontrolatzen egongo baita. Alegia, ondo irakurtzen ote duzun ziurtatu beharko du.

Zerbait gaizki irakurtzen duzun bakoitzean, STOP! Esan beharko du!

Horretarako, berak ere aldi berean irakurri beharko du, noski! Irakurtzen ari dela ziurtatuko dugu, baldin eta zuk gaizki irakurtzen duzunean huts egin duzula esaten badizu! Beraz, irakurri, baina egin hutsak tarteka! Ea nola irteten den irakurketa jokoa!



43. ELKARREKIN GAIZKI BAINO,
HOBE APARTE ETA ONGI!

5. OSASUNA GURE ONDASUNA

Gure laguntxoan etxe “marabillosoa” ikustea eta aztertzea gomendatzen dizuegu. Animatu haurrari etxeari begiratzea, gure laguntxoak, etxeko geletan zertan ari diren aztertzea... Lehenik eta behin, hitz egin horren inguruan.

Ondoren, esan haurrari eskuineko aholkuetan erlaxazioaren eta ondo arnastearen inguruko gauzak datozela eta ideia interesgarriak irakurri ahal izango dituela. Animatu testua irakurtzera, eta, ondoren, eskatu irakurri duen hori zuri azaltzeko. Esaiozu oraindik ez duzula irakurri eta zeri buruzkoa den jakitea gustatuko litzaizukeela... Ea zer ulertzen duen eta zer kontatzen dizun!

Amaitzean, galdetu haurrari:

- Noiz sentitzen zara zu urduri?
- Zerbaitek lasaitzen zaitu? Zerk?
- Nola uste duzu lortuko zenukeela lasaitzea?
- Probatuko dugu?

Ez bazaizue ezer bururatzen, Tiritatxoren gomendioak erabil ditzakezue! Probatu, eta ea zer moduz doakizuen!

6. NANA PARKEAN

Istorio polita duzue aurretik irakurtzeko. Nahi duzuen bezala irakurri: nahi baduzu, zuk irakurri berari, ahots tonu politez eta goxoz, irakurgaiaren jakin-mina pizteko.

Behin istorioa irakurririk, galdera hauek egin ahal dizkiozu:

- Zer gertatzen zaio istorioko neskatoari?
- Nor zaintzen du?
- Pozik dago? Triste? Zergatik?

Amaitzean, komentatu istorioa eta animatu haurra, istorioaren inguruko marrazki bat egitera. Zuk ere marraz dezakezu harekin! Horrelako momentuak haurrarekin igarotzea beti da polita eta onuragarria!



43. ELKARREKIN GAIZKI BAINO,
HOBE APARTE ETA ONGI!

7. TXOREN ISTORIOAK

Esan haurrari gure lagun Txo aspaldiko istorioekin datorkigula! Esan, baleontzien inguruan hitz egingo digula...

Galdetu:

- Zer dira baleontziak? Ez badaki, azaldu hitz eta irudi bidez.

Ondoren, animatu istorioa irakurtzera, eta amaitzean, egin iezazkiozu honako galdera hauek:

- Nondik irteten ziren baleontziak?
- Pasaia non dagoen badakizu? Horrela izan ezean, eman baliabideak herri polit hori erakusteko. Nahi izanez gero, asteburuan txangoa egin dezakezue bertara!
- Noraino joaten ziren baleak hartzera?
- Eta zer gehiago arrantzatzen zuten han?
- Zein itsasontzi aipatzen du istorioaren amaieran?

Esan bezala, ondo legoke Pasai ingurura txangoa egitea, bertara joan eta bertako herritarrei garai bateko baleontzien inguruan galdetzea... Animatu eta gozatu Euskal Herriko herri arrantzaleak ezagutu eta bisitatzen!

8. TXOKO TXIKI KUTTUNA

Testuak honela irakurtzea gomendatzen dizuegu:

1. Irakurri lehenengo olerkia. Baina ez irakurri lehenengo esaldia, eta ea, beste olerki zatia irakurrita, zeri buruz ari garen asmatzen duen.
2. Animatu haurra bigarrena irakurtzera, eta, ulertzen duenean, eskatu olerkia azaltzeko.
3. Hirugarren olerkian:
 - o Galdetu: zer gertatuko zaio olerkia idatzi duenari? Zergatik dio bi habia, bi erletxekote izango lituzkeela?
4. Irakurri iezaiozu azken olerkia, eta galdetu ea ulertu duen. Hala ez bada, azaldu olerkian dioena zure hitzekin.



43. ELKARREKIN GAIZKI BAINO,
HOBE APARTE ETA ONGI!

Amaitzean, animatu haurra zerbait idaztera irakurri dituen olerkiez, atera duen ideiaz, buruan gelditu zaionaz, nahi duenaz: bere pentsamenduak, gogoeta bat... Ez badu nahi eta idaztera animatzeko, zuk zeuk ere idatz dezakezu zerbait.

Amaitzean, erakutsi batek besteari zer idatzi duzuen... Konpartitu bizitza, konpartitu...

9. LAGUN

“Irakurketa zoroari” emango diogu tarte. Zertan datza? Elkarrekin irakurriko dugu, hau da, txandaka. Bitarte horretan, irakurriko ditugun hitzen bokalak beste batez ordezkatzeko ditugu. Adibidez, “e” bokala “a” bokalarekin. Zuek erabaki zein bokal ordezkatu.

Irakurketarekin amaitzeko, zerbait ulertu ote duzuen ziurtatzeko garaia izango da. Horretarako, labur-labur idatziko dugu orri batean zer ulertu dugun; jakina, bakoitzak berea. Laburpena egiteko, galdera batzuk asma ditzakezue. Eta, amaitzeko, elkarri irakurriko diozue zer idatzi duzuen.

EA BA BERDIN ULERTU DUZUEN IRAKURRITAKOA!

10. ORZKA

Euskal Herriko animalia dela diote gure lagunek. Ezagutzen zenuten? Atal honetara iritsi aurretik, galdetu iezaiozu haurrari ea ezagutzen duen orzka zer den. Ondoren, erakutsi iezaiozu irudia eta irakurri ezazue lasai-lasai hor ageri den informazioa. Ondoren, ibilaldi bat antola dezakezue orzka gertutik ikusteko, edo, bestela, Interneten dauden bideoak ikus daitezke.

11. FILOSOFO TXIKIAK

Hitz magikoaren bila!

Atal honetara iristean, haxe azalduko diozu haurrari: “Filosofo txikien atalean, hitz magiko bat dago, eta berau irakurtzean, zerbait gertatuko da! Ados?”. Zuk aukeratu hitz magikoa eta berau esatean zer gertatu den gertatuko den; izan ere, haur bakoitzari gustatzen zaizkion gauzak guztiz ezberdinak dira. Adibidez: karameluak gora botatzea, bat-batean bere jaki gustukoena agertzea... Amaitzeko, irakurketarekin loturiko galdera batzuk egitea proposatzen dugu.

Horrela, haurraren irrika eta interesa irakurketa osoan piztuta egotea lortuko duzue. ONDO PASA!



43. ELKARREKIN GAIZKI BAINO,
HOBE APARTE ETA ONGI!

12. MARTIN BERTSO

Talde handian irakurtzea ere aberatsa eta dibertigarria da. Oraingo honetan, haxe proposatzen dizuegu:

- Bildu zaitezte taldetxo eder bat, eta zuetako heldu bat Martin Bertsoren moxorroa jartzera animatzen dugu; hurrek ez dute jakin behar, noski.
- Borobilean zaudetelarik, beste heldu batek, honelako galderak egingo dizkie hurrei: “Irakurriko dugu Irrien aldizkariko Martin Bertsoren atala? Nork irakurriko du? Egon, egon gauza bat bururatu zait! Zergatik ez diogu Martin Bertsori deitzen, berak ikur dezan?”
- Egin ezazue deia eta handik gutxira azaldu dadila Martin Bertso; sorpresa izugarria hartuko dute hurrek!

“BADA KIGU PROPOSAMEN HAUEK ZAILAK SUERTA DAITEZKEELA, BAINA SAIATU ZAITEZTE ZUEN HAURRENGATIK!”

13. MARIKALANBRE

Esperimentatzeko prest? Esaiozu haurrari lasai irakurtzeko Marikalanbreren atala. Baina KONTUZ! Esperimentua egin nahi badu, berak azaldu beharko dizu nola egin; beraz, horretarako, zerrenda bat osatu behar duela adierazi behar diozu, jarraian esperimentua ondo azaltzeko.

Esperimentua egin ondoren, galdetu iezaiozu haurrari, ea berak beste modurik ezagutzen ote duen banaketa horiek egiteko, eta, nola ez, esperimentatu betiere heldu baten laguntzarekin!

14. LARGABISTA

Atal honetan irakurtzen hasi aurretik lanketa bat egingo dugu:

- Lehenik eta behin, bi minutu utziko ditugu, komikiari gainetik begirada bat egiteko.
- Ondoren, galdera batzuk egingo ditugu:
 - a. Non daude?
 - b. Zeri begira daude?
 - c. Zergatik ote daude Porrotx eta Marimototx harriturik?
 - d. ...



43. ELKARREKIN GAIZKI BAINO,
HOBE APARTE ETA ONGI!

15. ZENBATAK

Zenbaten atalera iristean, honako pauso hauek ematea proposatzen dugu:

- Ez dugu guztia jarraian irakurriko, ados? Gure memoria nola dagoen ikusiko dugu!
- Egun bakoitzean, lauki bat hartuko dugu.
- Lauki bakoitza, egun bat. Irakurri, eta egin gogoetak irakurritakoaren gainean.
- Hurrengo egunean, gogoratu atzo zer irakurri eta hitz egin zenuten.
- Hurrengo egunean, lehenengo egunean eta bigarrenengan irakurritakoa eta hitz egindakoa.
- Eta horrela, komikia amaitu arte!

16. MUNDUAK GUZTIONTZAT IZAN BEHARKO LUKE

Nola irakurtzea gustatuko litzaizuke zuri istorio hau? Hasieran irudiei begiratuta eta ondoren istorioa irakurrita? Edo hitzak irakurrita irudiari begiratzuz? Bakarrik, bion artean? Hainbat eta hainbat estrategia ematen ari gara hilerok, eta ziur gaude gai zaretela zuek ere zuen estrategiak sortu eta erabiltzeko.

Beraz, gure partetik, oraingo honetan, zuri utzi nahi dizugu aukera, irakurtzeko beste modu bati bideak irekitzeko. Kontuan izan, ez dagoela irakurtzeko modu bakarra, eta seguru gaude zuk aukeratzen duzun hori egokia izango dela irakurzaletasuna pizteko! Aurrera, beraz!

17. IRRIEN LAGUNA KLUBA

Irakurri ezazue Irrien Lagunak Klubekoek zer dioten. Ziur gaude zuen inguruan oraindik kluba ezagutzen ez duten asko daudela. Esaiozu haurrari ongi irakurri behar dugula hor zer ageri den, ondoren lagunei adierazteko Irrien Lagunak Klubak zer dioten. Azalpen horiek gauzatzeko, informazioa hautatuko duzue, garrantzitsuenak dena eta ez dena bananduz. Hautatzeko orduan, galdera batzuk egin ditzakezu, haurrak errazago sailka dezan. Ea bada!